

«Edo hasten gara poza diziplinatuki jorratzen, edo ez dago zer eginik»

Nork esan du filosofia aspergarria dela? “Poli-teismo bastarta. Lau egun Angela Davisekin” liburua argitaratu du Jule Goikoetxeak (Donostia, 1981), eta justu kontrakoa frogatu du. Saiakeraren eta kronikaren artean, liburua “poli-” da gaietan ere: arrazakeria, indarkeria, Palestina, klase borrokak, ekologismoa, bula-dak, euskaldunen eta katalanen arteko alderaketak... denetik dago, *totum revolutum*ean. Eta bastarta da formetan ere: «ostia», «kar-kar-kar», kaladak... antzinako filosofoen oturuntza famatuek frogatu zuten bezala, ideiak ez baitira gogoeta barkarti eta aratzetan sortzen.

Liburuko gako nagusiak xehatu nahian, Donostiako Tabakaleran elkartu gara. Gildatxo bana jan eta grabagailua piztu dugu.

Lau egun pasa zenituen Angela Davisen «bizkartzain». Nolatan?

Angela Davis bere kontaktua euskaldunok daukagulako etorri zen FIRA azokara. Eta zergatik daukagu guk? Davis Euskal Herrian egondakoa delako, Arnaldo Otegi kartzelan bisitatzeke. Eta grazia egiten dit, ze askorentzat Davis antirrazista, komunista edota feminista da. Eta gure kasuan, askatasun nazionalerako borrokarekin lotuta dago.

«Etorkizuneko jainkosa» bezala definitzen duzu liburuan. Zergatik? Sinbolikoki eta pertsonalki zer da Angela Davis zuretzat?

JULE GOIKOETXEA MENTXAKA

FILOSOFO POLITIKOA

Filosofian doktorea, mugimendu feministako kidea eta EHuko Zientzia Politikoetako irakaslea eta ikerlaria da.

«Bizitzeko gogo» piztu nahi du.

Mikel URDANGARIN IRASTORZA

Ni ez naiz oso mitomanoa. Beraz, berarekin lau egun horietan egon arte, niretzat beste erreferente bat zen, erreferente politiko bat, oso garrantzitsua dena. Nik bere hiru liburu irakurriak neuzkan jada.

Beste pentsalariarekin alde-ratuta zer dauka Angelak berezia egiten duena? Bere militantzia. Nik badakit gure erreferente asko ere militanteak direla hein handi batean, baina niretzat Angela Davisen militantziak beste dimentsio bat dauka. Segur aski mundu mailan oso ezaguna delako, hori ere esan beharra dago, baina bere konpromisoa, hain zuzen ere, hor erakusten du.

Berak ere esan izan du: momentu honetan bere helburua ez da ezagutza edo informazioa ematea zentzu zurrunean, baizik eta jendeari esperantza ematea, etorkizuna egon dadin. Horregatik dabil munduan zehar leku batetik bestera. Eta nik bertan ikusi nuenagatik, jendeak, eta batez ere gazteak direnek, zer esanik ez emakume gazteek eta arrazializatuek, etorkizuna izango balitz bezala begiratzen diote. Horregatik izendatzen dut nik ‘etorkizuneko jainkosa’.

Etorkizuna pentsatze aldera, «monoteismoa» albo batera uzteko deia egiten duzu.

Bai. Monoteismoa bizitzaz nekatuta dauden izakien ideologia edo praktika multzoa da. Zergatik? Bizitzaren murrizte bat dakarrelako. Bizitzaren aniztasuna eta dauzkan dimentsio horiek guztiak batera murriztu behar dituzu, eta gainera dena hierarkizatu behar duzu bat horren azpian. Jainkoa bilakatzen da botere bat eta bakarra, zeinak dena azal-

duko edo konponduko dizun. Edo dena sortuko edo sunsituko duen. Berdin du, gauza bakar batera egiten den erredukzioa da.

Hasieran Jainkoa da, baina gero zientzian egia ulertzeko era ere izango da, amodioa bizitzeko era, gizarte monogamoetan maitasunak bat eta bakarra izan behar du... Eta hau gertatuko da guztian. Moral unibertsalarena pasada bat da: toki guztietan beti berdinak izango diren printzipioak jartzen ahalegindu behar zarela esaten dizu. Gaizki dagoena gaizki dago beti, bestela hau parranda bat izango litzateke!

Bizitzarekiko beldurrez, monoteismoek askotan zeruan jartzen dute esperantza.

Monoteismoan ez da sortzen bizitza hobetzeko desira, baizik eta bizitza geroz eta gehiago murrizteko eta esperantza existitzen ez den beste mundu batean jartzeko. Mundu hori paradisu kristaua da, gero utopia modernoek jasoko dutena. Monoteismo guztiek mundu horretan planteatzen dutena aspergarria da, bizitzarik gabeko mundu bat. Ez dago botererik, eta botererik ez badago ez dago bizitzarik, bizitzak, edozein organismok, bizitzeko ahalmena behar baitu. Hortaz, beraien etorkizun desiragarri hori ezer gertatzen ez den estadio bat da. Hori zer da? Heriotza.

Liburuaren helburu nagusietako bat horri aurre egitea da: edo hasten gara poza diziplinatuki jorratzen, edo ez dago zer eginik.

Monoteismoak askapen mugimenduak ere zeharkatzen ditu, ezta?



Argazkiak: Gorka RUBIO | FOKU

Noski, guztia blaitu du. Gizarte hauek denentzat marko berdin bat sortzen dute. Eta hori ere normala da. Gizarteek kosmobisio antzeko bat edukiko ez balute, oso zaila izango litzateke gobernatzea, ze ezin duzu biolentzia zuzenaren bidez soilik gobernatu. Orduan, diskurtsoen eta markoen bidez kontrolatzen eta gobernatzen da. Alabaina, zer gertatzen da? Ideologia moderno guztiek partekatzen dituztela zenbait oinarri filosofiko eta politiko, baita iraultzaileek ere.

Marxismoan askotan klase molde bakarra dago, anarkismoan ere subjektuaren irudi bakarra dago... Ideologia moderno guztiek bezalaxe, dena

batera murrizteko tendentzia daukate, monoteismoan sortu direlako: bai salbazioa edo emantzipazio estrategiak, bai estrategia horien subjektu egokia, bai moral mota bat, eta abar.

Baina gero korrante pila bat daude. Adibidez, materialismo feminista edota transfeminismoa bera korrante horietatik datoz: marxismoaren, anarkismoaren edo liberalismoaren ideia batzuk jorratzen eta garatzen dira, Marxek bere aroko teoria eta pertsonaiekin egin zuen bezalaxe.

Zentzu horretan, zuk ez diozu kontzeptu bakar bati ere uko egiten, praxiaren zerbitzura ulertzen eta erabiltzen dituzu.

Guretzat, kontzeptuek estrategikoak izan behar dute, ez egiazkoak. Izan ere, marxismoak esaten duen bezala, hemen mundua eraldatzeko gauden, ez soilik ulertzeko. Eta hala egin nahi baldin baduzu, munduaren analisi bat egin beharko duzu, ez orain dela 2000, 600 edo 150 urtekoa, baizik eta gaur egungo mundukoa. Eta kategoriak historikoak baldin badira, saiatu beharko gara erabakitzen hor zein kategoria diren baliagarriak eta zeintzuk ez, eta zeintzuk jarriko ditugun zirkulazioan gure helburuak lortzeko. Zein da kontua? Helburuak zeintzuk diren.

Helburuetan askok ideologia moderno, liberal eta ilus-

tratuetara jotzen dute. Hala ere, ia herrialde guztietan, horietara jotzen ez duen minoria bat dago, haiengandik abiatuta beste mundu batzuk egiten dituztenak. Eta gu hor kokatzen gara. Eta hain zuzen, horregatik erabaki nuen liburua idaztea. Ez Angela Davisekin lau egun pasa nituelako, baizik eta gai hauen inguruko hizlari eta debate asko agertu zirelako. Angela Davis, Sara Ahmed, Vandana Shiva... jada beste marko politeista horretan daude. Eta ez gazteak direlako preseski, baizik eta lurreratuta daudelako. Alegia, konpromiso politikoa dutelako. Eta zuk konpromisoa daukazunean, sufrimenduari erreparatzen diozu, eta sufrimendu estruk-

turala sortzen duten egitura horiek nola konpondu pentsatzen duzu. Eta horretarako, analisisiek denbora guztian eraldatzen egon behar dute, ze mundua eraldatzen ari da.

Marko politeista horri dago-kionean, askotan «poli-» horretan jartzen da fokua: aniztasuna, dinamikotasuna... Zuk azpimarratzen duzunez, ordea, «teismo» ere jasotzen du kontzeptuak. Hau da, ez zaie botereari edota egiturei uko egiten.

Jakina. Askotan, ilustratuak diren horiek, ideologia batekoak edo bestekoak izan, esaten digute gure ontologia ‘flazidoa’ dela. Barkatu? Nola da posible? Esaten ari bagara dena dela materiala eta materiak sortzen duela hizkuntza, izpiritua eta kontzientzia, eta beraz, demokrazia, justizia eta abar, zergatik da flazidoa? Hiru edo lau edo bost botere ardatz egotea zergatik da likidoa edo flazidoa? Burua lehertzen zaielako! [barreak]. Zuk 500 edo 600 urte badaramatzazu pentsatzen eta gizartean transmititzen arazoa eta soluzioa beti bat dela... Baina zientzia eta paradigma berriak, kuantika barne, marko “poli-” horretara doaz.

Legeak, baina, beti ez doaz norabide horretan. Erresuma Batuko sententzia da horren lekuko.

Noski, horregatik, monoteista guztiak super pozik daude sententzia honekin: ‘Zer da emakumea? Alua edo gametoa. Utzi tontakeriak, ez nazazu nahastu!’. Hori da mezua. Beraientzat, mundua Playmobil bezalakoa da. Eta elementu horiek noiztik daude? Big Bangetik!

Baina heterosexualitatea pulstio bat baldin bada, zergatik ari zarete transak eta abor-



tua debekatzen, jendea hiltzen...? Gosea bezalako pulstioa baldin bada, zein da arazoa? Ah, ez dela pulstio bat, erregimen politiko totalitario bat baizik!

Beraz, edo jaio egiten gara edo egin egiten gara. Eta egiten baldin bagara, azaldu beharko da nola egiten garen. Ez da horren zaila.

Egite horri lotuta, zuk honakoa diozu: gizonak eta emakumeak klase sozialak dira, eta helburua horien desagerraraztea da, ez horien aitortza.

Nik beti esan dut: guk klasea erabiliko dugu estrategikoa

«Askorentzat Angela Davis antirrazista, komunista edota feminista da. Eta gure kasuan, askatasun nazionalerako borrokarekin lotuta dago»

den heinean, ez *per se*, kontzeptu batekin tematzeagatik. Guk esaten dugunean gizonak eta emakumeak, beltzak eta zuriak, klase politiko eta sozial bat direla, jendea entzuten jartzen da. Horregatik erabiltzen dugu. Ze guk ez badugu hori esaten, jendeak uste du entitate biologikoak direla. Eta ez dago modurik hortik ateratzeko.

Bestela, jendeak emakumea generoarekin lotzen du. Ez, lanarekin lotu behar da. Gizonen eta emakumeen arteko diferentzia ‘emakume’ izateagatik egiten dugun lana eta sufritzen dugun biolentzia da. Gero, peluka, ezpainetakoa

edo nahi duzuna jarriko digute, baina hemen diferentzia lana eta biolentzia dira. Hemen, Pakistanen, Kongon edo berdin du non. Eta diferentzia gizonen taldearekiko da. Ze esaten dizute: ‘Bai, baina emakume asko gizon asko baino aberatsagoak dira’. Bai, noski, emakumea ez delako eraikitzen klase kapitalistarekiko, baizik eta gizonen taldearekiko, horregatik daude zuriak baino aberatsagoak diren pertsona arrazializatuak ere, eta horrek ez du arraza gene bat bilakatzen.

Ez dauka aparteko bueltarik: egin egiten direla esaten badugu, klase ez naturalak dira; orduan, zer dira? Klase politiko bat. Baina emakume izendatzen dugun taldeak egiten baldin badu mundu mailan lan ez ordaindu ia guztia, orduan klase sozioekonomikoak ere badira.

Eta nire desira baldin bada berdintasuna, alegia, menderakuntzarik ez egotea, orduan menderakuntza sistema horiek sortu dituzten subjektuak desegin behar dira. Kontua ez delako emakumeak munduan barna doazela eta bat-batean erlazio patriarkalak atxikitzen zaizkiela, baizik eta patriarkatuak sortzen dituela emakumeak. Hori oso ondo ikusten da langile eta kapitalistarekin, orduan ez dakit zergatik kostatzen den horrenbeste gizon eta emakumeekin. Agian monoteistak garelako? Izan daiteke.

Politeismo hori bastarta da. Azaltzen duzunez, emakumetasunak neurritasuna eta txikitetasuna esan nahi du. Liburuan hori puskatzeko ahalegina agerikoa da.

Bastarta nik jartzen dut, batez ere ez-purutasunaren kontzeptua sartzeko. Batetik, bastarta

normalean zikina delako. Bes-tetik, bastarta ez delako legiti-matua, alegia, minoria garela-ko. Proposamen hauek ez dira hegemonia, eta orduan ez dau-de legitimatuta ez eskuin, ez ezker monoteistarengandik. Horregatik ekartzen ditut emakume hauek hona. Bastartak gara, baina beste bastarta batzuk baino botere gehiago daukagu eta hori bastarten borroka zabaltzeko erabiliko dugu.

Gainera, filosofo eta zientifi-ko potenteenetarikoak marko honetan daude. Noski, oraindik minoria dira. Baina tartean hizkuntza zailtasunak daudelako ere bai. Esaten ditugun gauzak askotan ez dira ulertzen, baina ez zailak direlako, pentsatzeko beste modu bat delako baizik. Askoz ere zaila goa da aritmetika edo buruketa bat egitea, baina ez zaigu arrotza egiten, horretan hezi garelako.

Borroka politikoaren eginkizuna, hain zuzen, hori da: errealitatea aldatu ahal izateko beste kategoriatzuk zirkulazioan jartzea. Bestela ezinezkoa da. Hasiera batean, kategoriatzuk guztiak dira bastartak. Berdina gertatu zitzaion Mendeli ere genetikaz hitz egiten hasi zenean. Denbora pasa behar izan zen, marko osoa aldatu eta bera ulertzeko. Horrela egiten dute aurrera gizakiak eta zientziak.

Horregatik, pozik gaude marko hegemonikotik arrotzatsun hori egozten zaigunean, transgresiorik gabe eta moles-tatu gabe ezin delako ezer aldatu. Nik beti esaten dut: ez baldin badaukazu etsairik, zerbait gaizki egiten ari zara; ez zara fidatzekoa, ze etsairik ez duten erreferenteak ez dira ezer aldatzen ari, konplazentziarako eta sistema birsortzeko ari dira. Orduan, zerbait

«Jendeak emakumea generoarekin lotzen du. Ez, lanarekin lotu behar da. Gizonen eta emakumeen arteko diferentzia 'emakume' izateagatik egiten dugun lana eta sufritzen dugun biolentzia da»



esaten dugun bakoitzean *kris-toa* sortzen baldin bada, oso seinale ona da.

«Eppur si muove» esaten zuen Galileo Galileik, artean bastarta zela. Alegia, «ibili badabil, ordea».

Ezetx badirudi ere, nik badakit borroka irabazten ari garela. Zer zentzutan? Noski ari garela pobretzen, eta noski urte super zailak eta biolentzia zuzena datozela. Baina sozialki markoa aldatzen ari gara. Ari gara, eta nik hori nabari dut. Orain dela 10 urte gauza hauek esaten genituenean, harrituta begiratzen ziguten, baina orain jada ez. Hori Olinpiada guztietan ikusten dugu, jada eskandalosoak dira. Iaz ikusten hasi nintzen eta pentsatu nuen: baina Olinpiadak ez al ziren mistoak? Soilik emakumeak zeuden, edo transak, edo maritxuak... Ez zegoen gizon normalik berrietan! [barreak]. Aurreko urtean Jenny Hermoso... irabazten ari gara, kontua da oso geldo doala. Baina badoa, badoa, badoa. Eta nabaritzen da. Bestela faxista guztiak ez lirateke hiper-moskeatuta egongo!

Zer pasatzen da? Gure borroka epe luzekoa dela. Aro oso baten aldaketan gaude, eta aro baten tenporalitateak 500, 600 edo 700 urte esan nahi du. Orduan, trantsizio honek pila-pila bat iraungo du. Baina aro hori politeista izango da, ez daukat inongo zalantzarik: bizitzaren aniztasunaren aldeko markoak datoz, nahiz eta faxismoa etorri. Dialektika omen. Eta zirkulazioan jarri behar dira ideia horiek, eguneroko hizkuntza batean, esateko: 'Lagunok, poztasuna, diziplina, borroka,... goazen etorkizuna eraikitza!'.